

- **Merkatuaren segmentazioa**

Gure bezero nagusiak gazteak dira, zehazki Tolosaldeako eta Goierrialdeako gazteak, batez ere festa eta plan bereziak gustoko dituztenak. Berdin du autobusa nondik ateratzen den, hainbat geldialdi egiteko aukera egongo da, adibidez, Tolosan, Villabonan eta Andoainen. Hauek generalki, bezero aktibo eta sozialak dira eta haien gustoko gauzak egiteko garraiobide seguru bat bilatzen dute. Gazteok, teknologia erabiltzen ohituta gaude, beraz eskaerak aplikazioaren bitartez egiteko erreztasuna izango dute. Horrez gain, kostua kezka nagusia izan daiteke, baina hori kontuan dugu eta prezio onak eta fidagarriak dira. Proiektuaren balioa, beraz, gazteen bizi-erritmoa eta behar teknologikoak asetzea da.